

# Gipuzkoa: Heziketa Bereziko langileen %80ak lau orduko lanuztearekin egin du bat



Gipuzkoako Hezkuntza Bereziko langileentzat, sindikatuok gaur deitutako 4 orduko lanuzteak gorakada bat markatzen du mobilizazio hauetan.

Apirileko lanuztean % 80tik gora parte hartu bazuen, oraingoan ere beste hainbeste atxikitu da.

Arratsaldeko 16:00etan Hezkuntza Sailaren aurrean eginiko kontzentrazioan, Gipuzkoako langileen kopuru polita gerturatu delarik mobilizaziora.

Hezkuntza Sailak (Tontxu Campos buru- EA) erantzunik eman gabe jarraitzen du, ez du erantzukizunik erakusten. Langileok 5 urte lan-hitzarmenik gabe gauden honetan, Heziketa Bereziak dituen arazoei irteera errealik negoziatu eta bideratu gabe.

Heziketa Bereziko kolektiboak jasaten ari den egoerari, zein hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen arretan ematen diren arazoei konponbiderik eman barik jarraitzen duen bitartean, langileok egoera salatzen jarraituko dugu Hezkuntza Saila konponbiderako negoziazioa erditze aldera.

Beraz, langileon borroka ez da bukatu, denon artean lortuko dugu!

Euskal Herrian, 2008-05-08

